

NERE BURUTAZIOA

2012'ko urtarrilleko 13'ko D.V. egunerokoak, Gipuzkoako sagardotegian zerrenda zekarren; iruregeita lau guztitara eta geienak ondo ezagutzen ditudanak. Bat-batean burutazio auxe jaio zitzaidan: danairi bina bertso jartzea, bertsoa eta sagardotegia gorputz eta anima diralarik. "Gure kole-jioak/sagardotegiak" kantatu zun Udarregi bertsolariak. Beraz, ortara ni-joa borondaterik onenez; irakurle, zure gogokoak izatea litzake nere po-zik aundiena.

Zalbide (Abaltzisketa) *T. 943652176*

Abaltzisketara bidea artu,
Amezketatik ertenik,
Zalbide sagardotegi ori
sarri gogoan bai det nik.
Eta ez pentsa aruntz joana
iñoiz damutan gaudenik;
iñori berriz ez diot entzun
sagardo txarrak daudenik.

Egur ikatzez piztuko dute
zorioneko parrilla,
baneatzeko arrai preskoa
edo kakallo tortilla.
Nagusi jauna azkar joango da
txuleta on baten billa;
bizi-pozaren txokoa degu,
alaxe gerta dedilla.

Aburuza (Aduna) *T. 943692452*

Sona aundiko etxea degu
Adunako Aburuza,
pozetan berrez jartzen dirade
anima eta gorputza.
Beste gauzarik ez da entzuten
sagardoaren izkuntza;
aruntz joateko Jaun zerukoak
egin deigula laguntza.

Amaika illabetez zabalik
da itxita abenduan,
zorionean orrera bide
noizbait ikasi genduan.
Gauza eder da zoragarriak
izango dira munduan;
jakin nai nuke txoko oberik
izadi onek nun duan.

Zabala (Aduna) *T. 943690274*

Da Aburuza baiño lenago
aurkitutzen da Zabala,
esan bearrik ez dago noski
biak auzoak dirala.
Aitortu bear bietan ere
ondo artuak gerala;
oietan pozten ez dana berriz,
gaixo aurkitutzen dala.

Arrigarria nagusi jaunak
dadukan borondatea,
nola eguardiz ala illuntzez
beti zabalik atea.
Gauz ederra da basoa artuz
upel ondora joatea;
Zabalanean erreza degu
zoriontsu izatea.

Izeta (Aia) *T. 943131693*

Aiako Izeta Sagardotegi
ta jatetxe berezia,
etxe onetxek bixitatxo bat
ondo dauka merezia.
Errespetoko jendea degu
lanean *zintzo eria;*
jan-eranetik azkar daukazu
eskatzen dezun guzia.

Izetari buruz beste gauza bat
badago esan bearra,
plaza gizonen seaska degu
ez da jan-eran bakarra.
Besteak-beste arri jasotzen
nola berri ala zarra;
orko txuletak edo sagardok
nunbait badute indarra.

Satxota (Aia) T. 943131693
 Satxotá dago Alako parten
 Oriotikan gertuan,
 sagardo bidez bizi diranak
 emanean da artuan.
 Nagusia bera soñujolea
 sarri oi da agertu an;
 goibeldutzeko errezetarik
 ezin liteke artu an.

Aruntz joanda gerta oi giñan
 soñu, dantza ta bertsoa,
 da txandan-txandan upel ondora
 luzaturikan besoa.
 Zedorrek nai dezun ainbean
 beteko dezu basoa;
 nai dan guztitan ez da billatzen
 olako Paradisoa.

Olagi (Alzaga) T. 943 887726
 Goierrin ere zorionean
 nai ainbat sagardotegi,
 da Alzagara joan ezker
 bertan daukagu Olagi.
 Urte guztian zabalik dago
 danai emanez arpegi;
 baldin neurria erabilliaz
 ezer ez degu gelegi.

Lekua ere berekin badu
 eunda ogei lagunentzat,
 upel guztiak aukeran daude
 aruntz joaten danarentzat.
 Euskaldunaren oitura zarra
 artu dezagula aintzat;
 pake bidean sustraia dala
 neri iruditutzentzat.

Gaztañaga (Andoain) T. 943591968
 Gaztañaga sagardotegi
 era berean jatetxe,
 gure premiak ondo aseta
 gertatuak gera antxe.
 Sagardotegitikan aparte
 jan-eranez nai dan klase;
 aurreruntz ere jarrai zazute
 orain arte bezelaxe.

Andoain degu bere erria
 auzoa berriz Buruntza,
 aspaldi samar egin genduan
 etxe orren ezagutza.
 Animak ere kalterik ez du
 indartzen bada gorputza;
 biak maitatzen dituan ura
 joan dedilla aruntza.

Sarasola (Astiasu) T. 943 6902 83
 Sagardotegi eder askoa
 Astiasun Sarasola,
 aitortu bear amaika aldiz
 pozik joanda nagola.
 Mendi-mendian aurkitutzen da
 orrek ez digu ajola;
 oraindikan or ikusi leike
 lege zarreko eskola.

Nagusi zarrak jarraitutzen du
 garbia bezin txukuna,
 orain semeak artua dauka
 negozioko jarduna.
 Baiña sarritan beteko dute
 aitonak esaten duna;
 eskola ona baita urteak
 erakutsitzen diguna.

Alorrenea (Astigarraga) T. 943336999
 Astigarragan aurkitzen gera
 sagardoaren irian,
 asierako Alorrenea
 degun sagardotegian.
 Urte guztian zabalik dago
 bazkari ta aparian;
 ezdakienik baldin balego
 Petritegira bidian.

Irureun lagunentzat lekua
 badegu Alorrenean,
 gose-egarriak ondo kentzeko
 erarik jatorrenean.
 Da batez ere txotxeko garai
 berria datorrenean;
 sagardoaren marmarra entzunez
 upelik ederrenean.

Artola (Astigarraga) T. 943557296
 Urtarrillaren ama bostetik
 maiatzaren lenengora,
 Artola sagardotegi orretan
 txotxean dagon denbora.
 Basoa artuz nolaz ez joan
 upel zarraren ondora?
 Batek gustoa duan lekuan
 errez joaten da denbora.

Eunda larogei lagunentzako
 lekua omen da bertan,
 oraindik izan gabea nago
 zertan asi gezurretan.
 Danetara ezin iritsia
 utsegin bada *det* ezertan;
 ea egunen baten nere gogoa
 odo osatutzen detan...

Astarbe (Astigarraga) T. 94355296
 Astarberetzaz itzegiteko ez naiz egongo pezkizan, lenengo aldiz sagardotegira etxe ortan sartu nintzan. Geroztik irurogei bat urte joanak badira bizitzan; orduan artu nuan karreran damurikan ez det izan.

Orduko gastuak etziran noski gaurkoaren antzekoak, berrogeita zazpina pezeta genitun pagatzekoak. Jaun zerukoai otoitz beroak daduzkat zuzentzekoak; talde artatik bi bizi gera il ziran gaiñontzekoak.

Bereziartua (Astigarraga) T. 94355298
 Astigarragako izen aundi bat degu Bereziartua, sagardotegi munduan beintzat aspalditxo indartua. Etxe artara joatekore izandu naiz beartua; alako aundi nola liteken nere ezin ulertua.

Urtarrillaren erdi aldetik maiatzan azkena arte, jende mordo bat ez da izango upel ondotik aparte. Funda oxi lagunentzat leku diotenez badaukate; gose-egarri aruntz joandakok konpormatuko zerate.

Buenabentura (Astigarraga) T. 943552322
 Etxe bakoitzak bere oiturak txotxeko sagardoakin, berezitasun aundi bat bada Buenabentura onekin. Otorduaren asera ori nai bada karakolakin; au da egia, gustoan kontra ezin liteke itzegin.

Urtarrillaren erdi aldetik apirillan azkenera, nai ezkerro Buenabenturan bapo gozatuko gera. Basoa artuz jende taldea upeletik upelera: "Au ona zegok, goazen bestera ori nolakoa ote da?".

Etxeberria (Astigarraga) T. 943555692
 Urtarrillaren erdi aldetik maiatzaren aurrenera, Etxeberrian sartu gindezke lekurik ederrenera. Aurre enkarguz bakallaoa jarririk saltsa berdera; sagardo tragoa ontzeko ere onena ez al da bera?

Berreun bat lagun artzeko ere izanik nai ainbat toki, da upeletikan upelera ibillitzeko egoki. Batean ona, besten ohea berdiñik ezin eduki; Etxeberria probatu ez dunak zerua zer dan ez daki.

Gartziategi (Astigarraga) T. 943469624
 Gartziategi sagardotegia ez degu leku arrotza, esan liteke etxe orretan saldutzen dutela poza. O zenbat aldiz alaitu degun triste gendukan biotza; talde txikiak gozatutzeko aunda toki aproposa.

Gogozko dute bakallo saltsa eta txekorran saietsa, txotxetik txotxera errez artuaz alaitasunan laiñeza. Nere izketak baieztatzeko bakoitzak ikusi beza; leku ohea billatzen beintzat ez da egongo erreza.

Gurutzeta (Astigarraga) T. 943552242
 Apirillaren erdira arte txotxeko eginkizunak, andik aurrera botillan bidez sagardoaren jardunak. Astelenetik larunbatera lan egiteko egunak; bein etxe ortan sartu ezkerro danok gerade lagunak.

Astigarragak daduzkan pamak ez dirade geiegiak, Gurutzetan e ederrak dira sagarraren iturriak. Txorrota basoan artuaz or makurturikan gerriak; bizi-pozaren sustrai ditugu gure sagardotegiak.

Ipintza (Astigarraga) T.688811224
Urte guztian zabalik dago
sagardo ederra txotxean,
igande gauez da astelenez
beintzat gertatu ezean.
Sagardotegitik aparte ere
jatetxe baten klasean;
Ipintzatan ezin da erten
egarriz eta gosean.

Eunda berrogei ta amar lagun
berekin artzen dituna,
ikusi orduko begiak pozten
dituan gela txukuna.
Iñori ezin damutu noski
etxe orretara juna;
aukeran aberastasuna degu
Ipintzan dadukaguna.

Irigoien (Astigarraga) T.943550333
Irigoien edo Herrero ori
guk ezagutu Ergobin,
Manuelekin artu genduan
konta ezin ainbat atsegin.
Errespetoko gizona beti
danairi ondo itzezin;
erdi-txoron bat gertatzen bazan
jakiten zuan zer egin.

Orain semeak etxe berria
ez du egiña nolana,
Bereziartun aldamenean
guztiz dotore ta alai.
Aitari etorri zaio orain
erretiratzeko garai;
sagardotegin gozatu leike
kafeterian ere bai.

Larrarte (Astigarraga) T.943555647
Astigarragan sagardotegia
deritzaiona Larrarte,
iñorrek joan nai badu beintzat
ez da egongo aparte.
Oraindik izan gabea nago
milla aitzaki bitarte;
zerbaiten palta sumatuko det
etxe ortara joan arte.

Urtarrillaren ogeita bitik
maiatzan bigarrenera,
Larrarte ortan sartu gindezke
lekurik ederrenera.
Apariz kanpo larunbat, igandez,
bazkariaren arrera;
irakurlea zedorrek pentsa
bear ortatik aurrera.

Lizeaga (Astigarraga) T.943468290
Lizeagako eginkizuna
ezin da jarri auzian,
urtarrilletik apirillera
txotxak berez dun grazian.
Andik aurrera botilletatik
eder udara guzian;
sagardo bidez etorritzen dan
umorea nagusi an.

Larunbatetan berriz aukera
iñork nai badu bazkaldu,
eguna jai ta sagardozale
danak arrazoi ez al du?
Egun eder bat igarotzeak
ez dezake ezer galdu;
baizik gorputzak artu-emanak
indartu eta zabaldu.

Mendizabal (Astigarraga) T.943555747
Mendizabal au juzkatu leike
edozein jatetxen pare,
sagardotegi bakarrik ez da
aukera geio badaude.
Itxita berriz igande gauez
astelena baita ere;
lanerako ez da gogorik noski
atsedenik artu gabe.

Berreun da berrogeita amar
sartu leiken jende pilla,
aukera dago nai bada txotxa
edo nai bada botilla.
Alako lekun dagolarikan
patxaratsu ta trankilla;
ura utzita nora joan leike
pake obearen billa.

Mina (Astigarraga) T.943555220
Bakallaoa saltsa berdean
eta txotxeko denbora,
jendea pozik arrimatzen da
upel zar aien ondora.
Eta jarraian txuleta eder bat
etorriko da gogora;
sagardotegi on baterako
bidezkoa izango da.

Astigarragara errez joaten da
sagardoan aitzakian,
txotxan iturri oietatikan
aukera ona izaki an.
Mina ori jarri zuanak bai,
ondo asko bazakian;
zer izango zen Txoritoki
berrogeita amar zenbakian.

Oiarbide (Astigarraga) T.943532199

Sebastian da nagusi jauna
gizon borondatezkoa,
sagardogille bezela berriz
txukuna ta legezkoa.
Mesedetxo bat eskatutare
ezin izan ezezkoa;
guziak ondo ikusi naia
nola duan berezkoa.

Kintoak gera, ni bezelaxe
urare orain zartua,
sasoi ederra zuan garaian
trato txar asko artua.
Orain kanpoa baiño geiago
maite etxeko tratua;
bizitza seguratu danean
askorengan gertatua.

Petritegi (Astigarraga) T.943452188

Petritegira noizbait joateko
nork ez du egin ametsa?
Da etxe orrek badu berekin
lareun lagunentzat babesa.
Nagusi Joakiñengandik asita
danakin tratua erreza;
legatz kokotea jateko ere
ez da leku andrebesa.

Ainbeste gauza esan litezke
Petritegiren gorantz,
ango sagastiz, orko tola rez,
bat ezin jarri zalantzaz.
Apal ondoren berriz musika
nai bada ibilli dantzaz;
Astigarraga txikiago zan
Petritegirik ez bazan.

Errezola (Astigarraga) T.608143332

Urte guztian zabalik eta
urte guztian txotxean,
igande gauez eta astelen
eguardiz izan ezean.
Irureun lagunentzako lekua
ez da gelditzen utsean;
da batez ere udako giro
sargoiak etorritzean.

Arkumea ta txerrikumea
izan litezke enkarguz,
onak dirade txotxean dagon
sagardoakin lagunduz.
Oso erreza ez dagon arren
mundua zerbait konponduz;
Errezolako billera degu
ezkongai eta ezkonduz.

Sarasola (Astigarraga) T.943555246

Sarasolaren sagardotegia
eroritzen da grazitan,
bazkari, a pari zabalik degu
urteko egun guztian.
Sagardotegitik aparte ere
ain janari berezitan;
etxe onetan dagon aukera
ikusitzen da gutxitan.

Berreun da berrogeita amar
lagunentzako lekura,
sartu ezkeru artuko dute
serbitutzeko ardura.
Ertetzekoan iritsitzean
pagatutzeko ordura:
esango dezu, merke egin degu
errege baten modura".

Zapiain (Astigarraga) T.943330033

Zapirainean amaika aldiz
noski izanduak gera,
inoiz etzaigu damutu berriz
etxe artara juanera.
Erritik erten, kamio ertzean
aurkituko degu bera;
bodega on bat nai duan arek
eskuan dauka aukera.

Arrigarrizko ontzi saillak or
orma baten baztarrean,
nola ez poztu ainbat iturri
ikusirikan urrean?
Usai aparta nabaritzen da
arrai, aragi errean;
orko baldintza, zutik jan bear
lengo oitura zarrean.

Urbitarate (Ataun) T.943180119

Urteak ditun egun guztitan
zabalik da Urbitarate,
bazkaritan larunbat, igandez,
artu leikelarik parte.
Baldin gogorik izan ezkeru
ez dago oso aparte;
Ataunen eta inguruetan
aukera ederra daukate.

Bakallo-tortilla eta txuleta
sagardotegin begiko,
noizik eta bein arrais ere
ez da gaizki etorriko.
Zu zenentzako zaletzen zeran
ura dute ekarriko;
etxe ortatik oroipen on bat
artu liteke betiko.

Añota (Azpeiti) 7.943812092
Azpeitik badu sagardotegia
Añota deritzaiona,
sagardotegi askorengandik
nabarmenduta dagona.
Edozein pesta jartzeko ere
begiratutzen zaiona;
alde askotatik iritsi leike
etxe ortan zoriona.

Janarietan bereziena
izango dute zeziña,
eta bein jaten asitakoan
ura da ase eziña.
Sagardoa erateko ere
ain da laguntzaille piña;
apenas iñor damututzen dan
aruntz jira bat egiña.

Araeta (Donosti) 7.943362049
Araetara ere joanak gaude
beste askotako modura,
esan ere bai: "Etorri gaituk
zorionaren mundura".
Nai dan guztitan ezin liteke
joan alako lekura;
sagardotegia baiño geiago
zerbait izango da ura!

Ainbat ospaketa bertan ditugu
ezkontza tarteko dala,
kotxea uzteko arazo gabe
ain du inguru zabala.
Donostiko sailletan omen da,
legez izango da ala;
aitortu bear Lasarte, Usurbil
pauso batera dauzkala.

Astiazaran (Donosti) 7.943361229
Txotxeko denboran txotxetik eta
gaiñerakoan botilla,
urte guztian zabalik dago
alako leku trankilla.
Donostitikan etzaitetz asi
sagardotegi orren billa;
galdetze ezkeror joan Lasartera
edo berdin Usurbilla.

Bazkari, a pari egunero-egun
egin liteke bixita,
igande gaua bakarrik dute
urte guztian itxita.
Gose-egarriak kenduko dira
etxe ortara iritsita;
bein joaten dana berriz joateko
ez da egongo etxita.

-6-
Barkaiztegi (Donosti) 7.943451304
Urtarrilletik apirillera
eder txotxetik txotxea,
sagardotegitik aparte berriz
dadukate jatetxea.
Astelenetan itxitzen dute,
komeni atsedentzea;
Martutenetik barrena dago
zuzenbidea artzea.

Bakallaoa bi klasetara,
zainzuri edo txuleta,
etxe eder ori ikusi leike
sarritan jendez beteta.
Eder nagusi, etxekoandre
da gaiñontzekon arreta;
gorantza askon jabe dirade
ondo merezi dute-ta.

Kalonge (Donosti) 7.943213257
Kalongen gozatu nai duanak
joan bear du Igekdora,
da joan ezkeror iritsiko da
zeruko ate ondora.
Bistan bai ditu itsaso eder,
ainbat mendi eta lora;
pena da baiño paraje artan
azkar joaten da denbora.

Sagardotegi edo jatetxe
bertan eunka otordu,
zorionean paseak gaude
konta ezin ainbat ordu.
Jai gauean da astelenetan
itxitzeko dute kargu;
lana egiten duan pertsonak
atsedenare bear du.

Urkiola (Donosti) 7.943210168
Urkiola sagardotegia
dago leku erosoan,
ondo artuak izandu gera
joan izan geran kasoan.
Tortilla edo txuleta janez
txotxeko mama basoan;
aukera ori guztia dago
Ibaetako auzoan.

Urte guztian aukera dago
txotxeko edarrietan,
da serbizio berdiña dute
bazkari, a parietan.
Isteko egunak berriz dauzkate
igande eta jaietan;
olako aukera asko ez dago
beste sagardotegietan.

Akarregi (Ernani) T.9433307-13

Urtarrilletik apirillera
txotxean ainbat alderdi,
asteartetik larunbatera
askotan jende geiegi.
Larunbat, igandez bazkariak
alde ortatik gaitzerdi;
astelenetan dana itxita,
ori degu Akarregi.

Eunda berrogei ta amarrentzat
lekua ondo daukate,
upel bikaiñak iturri ederra
barrutik daukaten arte.
Ondorenean enbotellatu
da botillaz kajak bete;
eske guztiak ondo serbitzen
lanikan asko badute.

Alberro (Ernani) T.943550019
Otsaillaren aurrenetikan
martxoaren azkenera,
Alberro sagardotegi orretan
txotxetik degun aukera.
Asteartetik larunbatera
dago apaltzeko era;
upel onena nun izaten dan
ondo ikasiak gera.

Irurogei lagunentzako leku
ez txiki eta ez aundi,
jende jatorra beti biltzen da
emendik ez bada andi.
Zenbat egarri kendu ote da
upel zar ariengandi?
jendea zutik lege zarrean
ikusi leike oraindi.

Altzueta (Ernani) T.943551502
Sagardotegian istorietan
izen ona Altzueta,
sagarran zumu eder orretan
ez bai dabiltz antzu-eta.
Zer atsedena upel sail ura
jartzen danean beteta?
asteartetik igandera da
jendearentzat arreta.

Eunda ogei lagunentzako
lekua badaukatela,
lanak bear du irabazia
eta izan dezatela.
Dirua ere orain ez dabil
garai batean bezela;
oitura zarrak maite ditzagun
galduak gera bestela.

Elorrabi (Ernani) T.943336990

Urtarrilletik irailera iño
Elorrebin zabalera,
jendea pozik inguratuturik
upelan aldamenera.
Denboraldi orretan bazkaldu
eta apaltzeko era;
batak bestea errespetatuz
ondo ibilliko gera.

Berreun da larrogei lagunentzat
lekua bertan dagola,
jende jatorra izan ezkerro
guri ez digu ajola.
Sagardotegiak galdu bildurrik
ez luke bear iñola;
gauz ederra da upel eder bat
mama ona da dariola.

Iparragirre (Ernani) T.9435503-28
Aspalditako ezagun degu
Iparragirren Antonio,
amaika txolarte eder paseak
bera dalako merio.
Zartu da baiño ala ere ark
irriparra du jario;
emen ekintzak luzitzen dute
kontu utsak ez balio.

Txotxeko denboran Iparragirre
zorionaren atari,
eguneroko aparti eta
larunbat, igandez bazkari.
Saiatzen dira gustoa egiten
inguratutzen danari;
gero jendea errez asten da
bertsotan edo kantari.

Itsasburu (Ernani) T.943556879
Itsasbururen eskarmenturik
oraindik ez det neregan,
danetara joaterikan ez
naiz pena aundia dedan.
Oparo egin omen liteke
bai jan eta bai eran;
Itsasburutarrak jakingo dute
nola konpormatzen geran.

Urtarrilletik apirillera
txotxean naiko txorrota,
borondate ori daukan upela
ezin liteke gorrota.
asteazkenetik igandera,
dute lanerako nota;
Eun da amar lagun biltzen badira
egin bearra dagota.

Larre Gain (Ernani) T.943555846
Sagardotegi au gertatzen da
Ereñozuko auzoan,
baldin bertara joan ezkerro
gauza asko eroso an.
Txox garai ori pasa liteke
ain izaera gozoan;
egunez txori kantak entzunez
ontzarenak gau osoan.

Txox garai ortan egunero-egun
apaldu liteke alai,
da ostiraletik igandera
bazkari ederra ere bai.
Nola sagardo ala janariz
ez dira ibiltzen nolana;
Larre Gaiñera joatekotan
pozik artu liteke jai.

Olaizola (Ernani) T.943336731
Olaizolarenera joateko
gaur zeñek ez du ardura?
Etxe orretara joan liteke
prontoi bateko modura.
Besteak-beste iritsitzean
apaldutzeko ordura;
pozik joango da sagardoa ta
pelota maite dun ura.

Eun da berrogeita amarrentzat
lekuarekin jan-gela,
upel. **ederrak** aukeran berriz
txorrota dariotela.
Eguneroko apariak dira
leku askotan bezela;
larunbat, igandeak bazkariakin
da on egin dezatela.

Otsua Enea (Ernani) T.943556894
Olaizola-ta Otsua Enea
auzoak dira alkarren,
batek palta dun ura besteak
eduki dezake arren.
Bietan ere aukera ederrak
nola ikusita gauden;
bietara joatea onena
garaia pasa baiño len.

Otsua Eneko nagusi oiek
borondatea badute,
ainbeste jende ez luteke ez
jenio txarra balute.
Nola sagardo ala janari
bapo serbitutzen dute;
da lenengo izan nintzala
badira ogei bat urte.

Errupino (Ernani) T.943552239
Errupinoren irikiara
otsaillaren bian da,
martxon ogeita zazpira arte
txotxean dadukan txanda.
Besterik gabe sagardo bidez
dute beren propaganda;
jendea pozik gelditzen baita
ondo eran eta janda.

Irurogeita amar lagunek
egin lezateke bixita,
gose-egarriak kendutzen dira
orretara iritsita.
Etxe ortara joan gabe asko
ezin direde bizita;
atsedentzeko igande, astelen,
bi egunetan itxita.

Zelaia (Ernani) T.943555851
Sagardotegi onen izenak
kukurrukua altutik,
emen ekintzak luzitzen dute
gauz gutxi dago kontutik.
Oitura zarrak maite oi dira
zenbaiten pentsamentutik;
elbarriren bat izan ezean
jan-eranak dira zutik.

Urtarrilletik apirillera
zabalik da egunero,
baldin illuduntzeko zortzirak
iristen diran ezkerro.
Etxe ortara sartzen bada bat
txarrikan ez du espero;
berriz joateko gogoarekin
erretiratutzen da gero.

Begiristain (Ikaztegieta) T.943652837
Aspalditxotik ezagun degu
Iturriotz basarria,
basarri kutsu ura utzita
sagardotegi jarria.
Etxe ortatik oroipen pranko
guk badegu ekarria;
kupirik gabe kentzen genitun
gosea ta egarria.

Urtarrilletik ekaiñaren
azken egunera arte,
sagardotegi ortan txotxean
artu bai liteke parte.
Upeletikan txiki ta aundi
nai dan aukera daukate;
aruntz joanda nere esanaz
konturatuko zerate.

Ola (Irun) 7943623130
 Ola sagardotegira Irunen
 egin liteke bixita,
 zorionean bat gelditzen da
 leku ura ikusita.
 Urte guztian bazkari, apari,
 an bada milla grazita;
 Eguberri ta astelenetan
 bakarrik dago itxita.

Bertako nagusia izan gendun
 segaritan txapelduna,
 sagardotegi au izandu zan
 gero aukeratu zuna.
 Berreun da berrögei ta amarrentzat
 lekua zuzentzen duna;
 Meaka auzoan aurkitutzen dan
 etxe jator euskalduna.

Otegi (Lasarte-Oria) 7.943365029
 Urtarrillaren azkenetikan
 apirillan azkenera,
 Otegi sagardotegian noski
 txotxez gozatuko gera.
 Bazkari, apari, asteartetik
 larunbatego gauera;
 ulertutzeko, Solla-enea
 basarria degu bera.

Eunda berrogeita amar lagun
 txukun artzen ditun gela,
 aldamenetan upel ederrak
 txorroa dariotela.
 Aitortu bear, izan geranetan
 pozik erten geradela;
 nere partetik aurrera ere
 ala jarrai dezatela.

Aulia (Legorreta) 7.943806066
 Maiatzan azkenean ixteko
 zabaldurik abenduan,
 Auliaraiño dagon bidea
 ondo ikasi genduan.
 Bein joeten dana ez da jarriko
 aruntz joandako damuan;
 Legorreta ortan gure legorrak
 ondo kentzen genituan.

Larunbatez bazkaldu fiteke
 igandez itxita berriz,
 sagardo egiten badakitela
 aitortu bear da egiz.
 Gaur kotxean gabiltzan danak
 ertzaiñan bildurrez gabiltz;
 naiago nuke Aulia ori
 gertuago baldin balitz.

Baleio (Oiartzun) 7.943491340
 Baleion ez dute txotxean
 bestetako jokaera,
 botillatan bakarrik daukate
 sagardoan salduera.
 Sagardo ona ateratzeko
 ez da izango galera;
 asko tirata dagon titiak
 konparazio batera...

Zenbat buru dan ainbat aburu
 iñor ez gerade berdin,
 lanak irabazia bear du
 orretan saia alegin.
 Baleion sagardoa tabernan,
 jatetxe askotan berdin;
 aurrena trago batzuk eginda
 ondorenean itzegin.

Ordo Zelai (Oiartzun) 7.943491686
 Garai batean Oiartzun ortan
 sagardotegi ugari,
 gaur Baleio ta Ordo Zelai
 besterik ez da agiri.
 Jendeak muzin egingo zion
 sagardotako lanari;
 eskerrak auzoko errietan
 baduten nsiko erari.

Sagardotegi au txotxan denboran
 ondo osatzen da jendez,
 Oiartzungo Ergoienen dago
 iñor asten bada galdez.
 Eguneroko apari ederrak
 osatuz gizon da andrez;
 bazkarik berriz serbitu leizke
 ostiral, larunbat, igandez.

Egiluze (Orereta) 7.943523905
 Egiluzek sagardo, jatetxe,
 bietan artzen du parte,
 txotxean urtarrilletik asita
 maiatzan azkena arte.
 Jatetxea berriz urte guztian
 zabal da oparo daukate;
 aruntz joanak nere esanaz
 konpormatuko zerate.

Txox garai ori bukatutzean
 aukeran dago botilla,
 jan-eranerako ezin abia
 leku obearen billa.
 Etxe orretan tripa-zorria
 laister gelditzen da illa;
 Egi luzea dauka izena
 da ala izan dedilla.

Itsastegi (Tolosa) T. 943652964

Itsastegi sagardotegia
lengo era zarrekoa,
ta sagardoa eran liteke
kolore ederrekoa.
Eskubin dagon upela edo,
obea ezkerrekoa?
Eta onena izan liteke,
barrika baztarrekoa.

Urtarrilletik maiatzeraño
txotxan kargua artuta,
ondorenean millaka litro
botillan preso sartuta.
Txiri denboran ainbat janari
litezke aukeratuta;
txuletan ordez arkumea ere
surretik enkargatuta.

Altuna (Urnieta) T. 943554917

Zabaldutzeko urtarrilla-ta
itxitzeko apirilla,
garai orretan joan liteke
txotxeko txorrotan billa.
Bazkari-apari gusto duena
lasai exeri dedilla;
aukera ori nunnai ez dago
biotzetik esker milla.

Larogei eta amarrentzako
leku txukuna daukate,
Norteko trenan geltokitikan
ez dago oso aparte.
Gose-egarriz bat egon leike
aruntza joan bitarte;
aukera ori daukazutenak
zorientsuak zerate.

Elutseta (Urnieta) T. 943556981

Maiatzaren aurrena artean
dute txotxeko denbora,
baiña beste joanaldi batzuk
egin litezke gerora.
Nola bazkari ala apari
sagardotegi girora;
botillatako sagardoa ere
gauz ederra izango da.

Berreun lagunentzako lekua
ori ez da gero txantxa,
arrigarria jan-eranakin
ikusi liteken dantza.
Beti ez dago an egoterik
ori du bere arantza;
gaiñontzekoan Elutseta orrek
dauka zeruaren antza.

Eula (Urnieta) T. 943552744 -10-

Sagardo onaren fama beti da
Urnieta lurrean,
Eulako sagardotegi ori
ezin utzi baztarrean.
Bakallo-tortilla eta txuleta,
upelak berriz urrean;
euskera ederra nagusi dala
lengo oitura zarrean.

Urtarrilletik apirillera
txotxeko txorrotak diz-diz,
apariz aparte larunbatean
da igandean bazkariz.
Atsedentzeko astelenetan
itxita daukate berriz;
obe genduke orko aukera
basarri danetan balitz.

Oianume (Urnieta) T. 943556683

Sagardo lanak bukatu arte
sagardotegia itxita,
andik aurrera urte guztian
egin liteke bixita.
Eguberritako jai aundiak
oporretako utzita;
arratseraiño iritsi leike
egoartetikan asita.

Irureun eta berrogei
ta amarreko taldea,
mendian ere nun ikusten da
orrelako artaldea?
Zenbaki ortaz osatutzen da
Oianumen barrunbea;
ondo ematen duten lekupa
pozik joaten da jendea.

Setien (Urnieta) T. 943551014

Urtarrillaren azkenetatik
apirillaren erdira,
apariakim ondo txandatur
eta txiritik txirira.
Bazkariak ostiral, larunbat
da igande egoardira;
jai gaua eta astelenetan
ateak itxitzen dira.

Larogei ta amarrentzat leku
ez al da talde polita?
Txotxeko txanda noiz etorriko
danak illaran jarrita.
Bat ona eta bestea obea
kolorez ori-gorrita;
etxean egonda ez da jakiten
Gurutzetako berrita.

Aginaga (Usurbil) 7.9433667-10
Amaika illabetez zabalik
da itxita abenduan,
Aginagarako bide ori
ondo ikasi genduan.
Beste lekutan ez dagon zerbait
etxe orrek nola duan:
txotxean lau bat erari klase
borondate ondraduan.

Sagardo, ardo, beltz eta klaro,
txanpaina tarten dutela,
janarietan nai dan aukera
arraia edo okela.
Da aurki berriz aldamenean
jarriko duten otela?
Beste gauzarik ez diet opa
suerte on dakiotela.

Arrazain (Usurbil) 7.943366663
Urte guztian zabalik dago
txotxa, bazkari, aperi,
etxe ortako egokiera
ez da ikusten nunnari.
Alako lekun ixillena
pozik asten da kantari;
txoriak eta kukuak ere
jartzen dira bertsolari.

Alako toki patxarsoa
mendi ederrak lekuko,
bati ainbeste zorientasun
zaizkio gogoratuko.
Nai dan guztitan alako eran
ez bai gera gertatuko;
Arrazainera bein joaten dana
iñoiz ez da damutuko.

Saizar (Usurbil) 7.943364597
Iñoiz Saizarrera joaten danak
aukera dauka danetik,
izen aundia artua dauka
sagardoaren lanetik.
Nola arrai ta aragi erre
serbitzen dute onetik;
gero penetan erten bearko
alako zorionetik.

Berreun da berrogei lagunentzat
gela txukun da prestua,
serbitzaillean borondatea
izan leike berezkua.
Neurritik pasa gabea berriz
an egiten dan gastua;
izaera ark jarri lezake
arazo dana aztua.

Urdaira (Usurbil) 7.943322691-10-
Urdairan ere izandu giñan
ez degu joandako penik,
lenengo Aginagara, gero,
mendian gora joanik.
Gure aurrean etzan paltatu
ez jatenik ez eranik;
ez gendun uste alako pozez
andik ertengo giñanik.

Urtarrillaren erdi aldetik
maiatzaren aurrenera,
Urdairan ori daukatelarik
txotxa ibiltzeko era.
Larunbat igandetan bada or
bazkaldutzeko aukera;
igande gau ta astelenetan
alperrik joango gera.

Arizia (Zarautz) 7.943100489
Sagardotegirik gabe noski
Zarautz ezin leike bizi,
da Ariziak lege zarrari
zintzo nai lioke eutsi.
Ondartza eta kafeteriak
izan litezke nagusi;
baina sagardotegi-giroari
oraingoz pakean utzi.

Urte guztian zabalik dago
bazkariz eta apariz,
txotxean berriz nai dan aukera
sagardo ori ta gorriz.
Eta zer poza basoa artuz
upel ondora etorritz;
Euskalerrria tristeago zan
sagardorikan ez balitz.

Otaza (Zerain) 7.943801252
Zerainen degu sagardotegia
deritzaiona Otaza,
erri txikia izanagatik
ez al dijoa gorantza?
Udaberrian ederra degu
ondo zaintzen dan baratza;
nik Otazari ematen diot
orrelako baten antza.

Asteartetik larunbatera
jendea apartietan,
bazkaldu ere egin liteke
larunbat eta jaietan.
Jendea errez gozatutzen da
upel inguru aietan;
urtarrilletik maiatzeraiño
txotxak duan garaietan.

2012'ko Urtarrillean Billabonan

txomin Garmendia